

Zamudioko Kamara Korala

-2007 memoria-

***URTARRILA.**

Derioko Iparalde abesbatzak antolatutako Gabon kontzertuetan jarraituz, azken ekitaldia Derion izan genduan uratrilarren 6an.

***OTSAILA:**

Bizkaiako abesbatzen astea.

Begoñeko basilikan eskaintzen dira kontzertu hauek. Aurten XXXIV rena ospatu da. Kontzertu hau eskeintzerakoan, besteak beste, kontuan izaten dogu musikarien mendeurrenak .

Aurtengo kontzertua otsailaren 8an eta arratsaldeko 20'00retan eskaini genduan.

Otsailaren 10ean. Vicinay Cadenas enpresako urteko bilera orokorrean, Portugaleteko Hotel Casino kontzertua eskaini genduan.

***MARTXOA, EKAINA :**

Udaberriko kontzertuak

Zamudioko kamara korala sortu zanetik Bizkaiko Abesbatzen Elkartean (BAE) dago.

BAEk eta bertoko koruak, BBKgaz batera, udaberriko kontzertuak deritzon saioak eskeintzen dabez.

Zamudioko Kamara Koralak udaberriko kontzertu honeetako programazioan hauxe da:

- LEKEITIO: Martxoaren 31an, arratsaldeko 20:00retan, Andra Mari eleizan.
- ZAMUDIO: Maiatzaren 5ean, arratsaldeko 20:30etan, Aretagako Martin Deunaren eleizan.
- ZORNOTZA: Maiatzaren 12an, arratsaldeko 20:00etan, Zornotza aretoan.

*EKAINA: Bizkaiko Abesbatzen Egun korala

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak, ekainaren 10an Egun Korala ospatu eban. Aurten Ermuan izan da.

Egun koralean 1.800 abeslarik osatutako kontzertu haundi bat eskeintzen da.

*EKAINA: Urteroko taldeko irteera

Ekainaren 23 eta 24an Madrilen kontzertua eskainiko dogu.

23an izango da iluntzean. Bertako Euskal Etxeko lokaletan.

***URRIA, AZAROA**

Taldearen XX. Urteurrena ospatuz ekitaldi bereziak antolatu doguz urria eta azarorako.

Aldi berean garai honetan egiten dogun San Martin Kontzertua (aurten XVII.) eta Sta. Cecilia ospakizunak programazio honen barne gelditzen dira.

*Urriak 27-28: PUERI CANTORES

Pueri Cantores Federazioko partaideak izandakoak (Bizkaikoak eta Katalunyakoko talde bat), zapatu eta igandean elkartuko ginateke.

Zapatean, Katalunyakoei irteerak prestatu eta igande goizean danok meza abestu eta elkarteko bazkaria

*Azaroak 3: TOLOSAKO ABESBATZA LEHIAKETA

Aurtengoa 39. lehiaketa izango litzateke. Mundu osoko partaideak egoten dira, eta Zamudiora lehiaketa honetan parte hartuko dauan talde bat etorriko da.

*Azaroak 10: SAN MARTIN XVII KONTZERTUA

Zamudioko Kamara koralak urtero antolatzen dauan San Martin kontzertu honetara, Vocalia taldea gonbidatuta dago.

*Azaroak 17: TXORIERRIKO ABESBATZAK

Bailaran dagozan abesbatzak egun honetan elkartuko dira kontzertu bat eskaintzeko (Sondika, Derio, Lezama, Larrabetzu, eta Zamudio).

*Azaroaren 19tik abenduaren 2ra: ERAKUSKETA

Hogei urte hauetan bildutako argazkiak, orogarriak eta jantzien erakusketa egingo da.

*Azaroak 24: BAZKARIA

Hogei urte hauetan taldean parte hartu dabenak, lagunak eta gura dauan guztiak gonbidatuta egongo dira, elkarteko bazkari honetara.